Bizkaiko Foru Aldundiaren /2019 FORU DEKRETUA, irailaren 24koa. Honen bidez, EHUko Arboretumean Bost Kontinenteetako Landareen V. Azoka ikusteko sarreren prezio publikoaren aplikazioa erabaki eta prezio horren araudia garatzen da.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2019, de 24 de septiembre, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público para la venta de entradas para la asistencia a la V Feria de plantas de los cinco continentes del Arboretum.

Bizkaiko Foru Aldundiak, iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzearen arloan dituen eskumenen barruan, jardun-ildo batzuk abiarazi ditu oro har ingurumen-kudeaketa sustatu, bultzatu eta zabaltzeko eta paisaiaren zein naturaren balioak kontserbatu eta ezagutarazteko direnak. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailak estrategia eta ekimen batzuk bultzatu ditu Bizkaian landareen ekoizpenaren sektorea sustatu eta sendotzeko eta Bizkaiko Lurralde Historikoan sektorearen eskaintza bideratzen laguntzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia, entre las competencias asumidas en materia de sostenibilidad y medio natural, tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes de forma genérica, al fomento, promoción, y difusión de la gestión medioambiental y la conservación y divulgación de los valores paisajísticos y naturales. Además, de forma continuada el Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia ha impulsado también estrategias e iniciativas tendentes a fortalecer el sector productor de plantas en Bizkaia e impulsar la promoción de este sector y favorecer la oferta en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Jarduera-esparru horretan, Foru Aldundiak uste du beharrezkoa dela sektorea sustatzen eta landareen ekoizleen arteko foro bat sortzen laguntzen dituzten ekimenei laguntza ematea, planetan dauden espezie eta barietateak ezagutarazteko.

En este marco de actuación, esta entidad foral considera necesario apoyar aquellas iniciativas que ayuden a promocionar y constituir un foro de encuentro entre productores y productoras de plantas para dar a conocer las diferentes especies y variedades existentes en el planeta.

Era berean, gogorarazi behar da Bizkaiko Foru Aldundiak eta EHUk lankidetza-hitzarmen bat sinatu dutela ingurumen-kudeaketa egiteko eta Bizkaiko campuseko Arboretuma

Añadir que existe un Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la UPV/EHU para la gestión medioambiental y conservación del Arboretum sito en el Campus de

kontserbatzeko.

Goian azaldutakoagatik, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak ekitaldi hau dauka aurreikusita: urriaren 5 eta 6an, Bizkaiko campuseko Arboretumean, bost kontinenteetako landareen azoka egitea. Azokan, 36 ekoizlek hartuko dute parte, eta beharrezkoa da diru-kopuru bat ezartzea azokara joateko sarreraren prezio gisa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 24ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Xedea.*

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak EHUko Arboretumean antolatzen duen «Bost Kontinenteetako Landareen V. Azoka» ikusteko sarreren salmenta da prezio publiko honen xedea.

2. artikulua. *Ordaindu behar dutenak.*

Prezio publiko hau aipatu sarreren salmentaren onuradun diren pertsona fisikoek ordaindu beharko dute.

Bizkaia.

Por lo expuesto, el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural tiene previsto organizar los días 5 y 6 de octubre, en el Arboretum de la UPV/EHU del campus de Bizkaia, una feria de plantas de los cinco continentes, en la que tomarán parte 36 productores y productoras, siendo preciso establecer una cantidad económica como precio de las entradas para asistir a esta Feria.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 24 de septiembre de 2019

DISPONGO:

Artículo 1. *Objeto.*

Constituye el objeto del presente precio público la venta de entradas para asistir a la “V Feria de plantas de los cinco continentes del Arboretum”, organizada por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Artículo 2. *Personas obligadas al pago.*

Quedan obligadas al pago del presente precio público las personas físicas a cuyo favor se realice la venta de las citadas entradas.

3. artikulua. *Prezio publikoa noiz eskatu.*

Bat. Prezio publiko hau sarrerak saltzean eskatuko da.

Bi. Prezio publiko hau sarrerak benetan ematean ordaindu behar da.

4. artikulua. *Kopurua.*

Prezio publikoa euro 1 izango da sarrerako, eta sarrera doakoa izango da 12 urtetik beherakoentzat.

5. artikulua. *Kudeaketa eta likidazioa.*

Bat. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak kudeatuko du prezio publiko hau.

Bi. Eskudirutan ordainduko da prezio publiko hau.

Hiru. Foru dekretu honetan xedatu ez den guztian, batez ere, zorra ordaintzeko tokiari eta epeei dagozkien arloetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudian xedatutakoa izango da aginduzko.

Artículo 3. *Exigibilidad.*

Uno. El precio público se exigirá en el momento de la venta de dichas entradas.

Dos. La obligación de pagar el presente precio público nace con la entrega efectiva de la entrada.

Artículo 4. *Elemento cuantitativo*.

El presente precio público será de 1 euro por entrada y tendrá carácter gratuito para las personas menores de 12 años.

Artículo 5. *Gestión y liquidación.*

Uno. La gestión de este precio público corresponde al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Dos. El pago del presente precio público se realizará en efectivo.

Tres. En todo lo no dispuesto en el presente Decreto Foral, en especial, en todo lo relativo al régimen de plazos y lugar de pago de la deuda, se estará a lo previsto en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia.

Amaierako lehen xedapena. *Erregelamenduak garatzeko eta betearazteko gaikuntza*

Baimena ematen zaie Ogasun eta Finantza Saileko eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuei foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Amaierako bigarren xedapena. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, 2019ko urriaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2019ko irailaren 24an.

Disposición final primera. *Habilitación de desarrollo y ejecución*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas y a la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y surtirá efectos desde el 5 de octubre de 2019.

En Bilbao, a 24 de septiembre de 2019.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ